

ESTATU BATUEN



ALDE ILUNA

OTSAILAK 3

Zezen Basa (Raging Bull/Toro Salvaje, 1980), Martin Scorsese

OTSAILAK 10

Magnum Force (Magnum Force/Harry el fuerte, 1973), Ted Post

OTSAILAK 17

Josey Wales gaizkilea (The Outlaw Josey Wales/El fuera de la ley, 1976), Clint Eastwood

OTSAILAK 24

Ordu txikitik (After Hours/¡Jo, qué noche!, 1985), Martin Scorsese

"Zezen Basa", bere buruaren aurka adarka


Bronx auzotik dator notizia zezen bat izan dala jenioz bizia. Denetan hoberena dela diote periodikuek. Denetan goibelena ikusiko dugu guk laster. Jake du izena betizu kolorao indartsu horrek. La datorkion grazia. Baina riko karriketan denek ruz gainezka dagoela ring gainean. Amorra-10 roundetan. Soberan Janiro eta Cerdanek, goa da bultzatzen duen bakar batek izan zuen. Jakek idatziriko oroipe-zen ondoan zituen: *zuen Jakek alde z a u n a . Katolizismoaren barkamenaren itxaropena. Irtende bakarra zeratan datza....zure burua onartzen hasi behar duzu".*



Motta da, berriz, familiarengandik Italia gogorazaz, *Little Italy* deitu-**Zezen Basa** esaten diote. Amadakite guztiek. Errabiak jota dabil zioak ez du itsutzen, ordea, dakite hori Sugar Ray Robinson, bere lehiakideek. Baina sakona-zarrastak. Eta horren berri lagun Martin Scorsesek, izan ere. nak leitu bezain pronto, zera esan «*Nik bizi izan nuena, bizi izan rretik. Norberak bere erara, jaki-heredentzia, erudun sentitze hori,*

Zezen Basa, Bronxeko zezena. Hiru gizon, Jake, Martin eta Robert, Robert De Niro. Oskar pare bat. Bata, La Mottaren larrazalean barrena barrurago iristeagatik, 30 kiloz loditu zen Robertentzat. Bestea, berriz, muntaketa lanetan maisurik handiena den emakume batentzat. Thelma Schoonmaker da bera. Zeluloidetako aziti batekin izan zen ezkontua, Michael Powellekin, alegia. **Zezen Basa**n eginiko ahaleginak ez du parearik. Inon. Inoiz. Bost laguntzaile izan zituen. Filme hau gailurrean jarri duten hainbat eta hainbat kontu Thelmak asmatutakoak dira. Berak erabaki zuen hasierako eszenak zein izan behar zuen. Miss Schoonmakerrek kendu zion filmeari sobran zen indarkeria. Berak moztu zituen De

Niro eta Joe Pesciren inprobisaketa gehiegiz-ten ekoizleek. Bi ordu eta Thelmak eta Martinek. filmea mozteko eskatu. Amorruek zauritua den eta.... laugarren bat: Mi-ria. Berak emango dio, puntakoentzat jotzen den itxura espresionista; zen-Martin, Robert, Michael Niro Jake La Motta ber-ari zelarrik, Michael Po-zuena, alegia, eskularru




koak. Bi orduko lana nahi izan zu-hogei minutukoa aurkeztu zieten Sakon liluraturik, buruek ez zieten Ez eta ezer aldatzeko ere. Emakume bat, hiru gizon chael Chapman argazki zuzenda-egun, 80. hamarkadaren lanik filme honi eskatzen zuen taiu, baietsuetan ireala. Thelma, Jake, eta kolore bat ere ez. Robert De daderoarekin boxeoa trebatzen well, **Peeping Tom** zuzendu goriak jantzita zituela jabetu zen.

Alajainetan hasi zen zinegile fina, La Mottaren garaietan gorriak ez baitzen ikusten -odola izan ezik- boxeolarien eskuetan. Eta, desde luego, bai zine aretoetan jartzen ziren albistegiek bai orduko teleak txuri beltzeko amets eta amestakurrak zabaltzen zituzten. Bapateko erabakia izan zen: filmeak ez zuen kolorerik izango. Horrela, Jakek argia eta ilunaren artean egin behar zuen bilaketa, itzaletan amilduko zen zeharo...

Thelma, Jake, Martin, Robert, Michael eta seigarren konplize bat, Frank Warner. Berak, txapeldunak eman edota jaso egiten zuen ukaldi bakoitzak oihartzun desberdina izan zezan

lortu zuen. Frankek sorturiko soinu banda miresgarri horren sekretu guztiak inork ere ez dakizki. Bi hilabetetan lanean jo ta fuego jardun ondoren, Warnerrek birindu zituen berak asmatutako efektu berezi berezi horiek..

Thelma, Jake, Martin, Robert, Michael, Frank... tzen purukatzen hasita zen koadrila. Izen batzuk derrena, esateko.. **Mishima** zuzendu behar Mardik Martinek eraikitako La Mottaren izkribuen erraldoia hartu eta piskanaka, piskanaka, garaile barukoa azal zezaketen arrasto, aztama guztiak Jakek hezur eta muinean, bihotz eta sexuan na-eta metafisikoagoa bilakatu zen apika. Garai zegoen. Bere buruaz beste egiten saiatu zen be-sialdi amodiozko eta erlijioso anitzetan barrena elarik, Robert De Niro, hainbestetan proposatu-galdezka: *"Egingo dugu ba filmea?"*. Baiezkoa Martinek bai baitzekien zer kontatu, bazekien minaren berri zehatz eta ukiezina...



Thelma, Frank, Paul. Pesci, izan arren, orain

tan, **Uno de los nuestros** izan den hura ezezaguna zen arras. Berak sortu zuen pantailan La Mottari barkaziorik eskaintzen ez dion anaia.

Beste inor? Bai horixe. Cathy Moriarty. Vicky, Jakeren emaztea da zeluloidetan. Oskarren lehia basaki borrokatu zuen nahiz eta ohore osoz galtzaile gertatu...

Thelma, Jake, Martin, Robert, Michael, Frank, Paul, Joe, Cathy eta... Floyd Anderson, Johnny Barnes, Kevin Mahon. Guzti horiek izan ziren

tako boxeolariak, zegoeneko ukabi-hobeto eskolatua zen Robert De Ni-**Raging Bull, Zezen Basa**. Bronx tizia. Zeluloidetako kantatutazera doa bis-barnean sentitua, baina ez prexiko *te dagoen guzia*". Dardaraz utziko nahigabe sakonak. Dardarka jarriko rrokaldiek, ballet hilgarriak bailiren is-mantso, geldid hurbiltzen zaizuen dite hainbat irudik. Askotan, denbora da gure ondoan eta orduan, arrisku, be, amorruearen egia areagotzen da rean.

Zezen Basa. Jakin ez zekien baina lehiakiderik amorratuena erraiaetan zuenik. Gaiztoa zen ala gizon zintzoa galdetuko dizute zenbaitek eta zuek, Ebanjelioko itsuak legez, ez dakizuela erantzungo duzue zineari darion edertasun ilunak itorik.



"ring"ean. Bene-lez ondo baino roren kontra. auzotik dator no-tan ikusia, bame *"alegratzeko tris-zaituzte Jakeren zaitutzete bo-ladaturik. Mantso apokaliptia diru-pausatu egiten oinaze, atseka-gure begi au-*

ikasi zuen etsai, darion edertasun ilunak itorik.

Harryk amesgaiztoak ditu / Magnum Force

Hogei urte pasa dira **Magnum Force** kalera atera zenetik, baina iragana hain uruti ez dagoela frogatzeko, orain dela gutxi ikus ahal izan dugu Clint Eastwooden zuzendutako azken lana, **Mundu perfektua**. Egile amerikarrak, aurretik egindako lanak irentsi eta galbahetik pasa ondoren, betiko pertsonaia eta istorioak berikusten ditu sendotasun handiagoz, ikusmira zabalagoaz, baina aurrekoari eusten dio. **Magnum Force** ez zuen berak zuzendu, baina bertan azaltzen den pertsonaiak eta, zergaitik ez, filmearen jeneroak berak, Eastwooden formula osatzen dute. Sergio Leonerekin eman zuen jauziaren ondoren, Don Sieglekin burutu zituen lanak izan ziren hura osatzen lagundu ziotenak.

*Spaghetti western*aren indarkeria estilizaturik eta Hollywoodeko polizi filmeen ezaugarriak ezkonduz, heroi berezia sortzen du. Indibidualista azken muturreraino. Legeak eta uniformeak ez dute sentimendu hori inolaz ere mugatuko eta horrela, EEBetako mitologiaren oinarri nagusienetakoaren ordezkari eta aitzindari bilakatuko da, baina aldi berean eskuarki erabiltzen duen bortizkeriak sistemaren alde ilunenak azaleratzen ditu, honek suntsitu eta akatu egiten baititu bere kideak, benetazko oinarriek ez baitute zer ikusirik mitologiako askatasunarekin eta ustelkeriak eta hipokresiak amaigabeko indarkeria eragiten dutelako.

Magnum Force Ted Postek zuzendu zuen, baina aurretik Don Sieglek eta Eastwoodek jarritako ezaugarriak errepikatzen zituen. **Harry Zikinak** bere legea ezartzen zuen San Franciscoko kaleetan, baina oraingo honetan bere helburua justizia bere kasara hartzen duten poliziak dira. Ez du erukirik erudunak beste poliziak batzuk izan arren, **Unforgiven** filmean bezala bera izango da bizirik aterako den bakarra, behin indarkeriaren kutxa ireki ondoren Herioren ordezkari bilakatzen delako.


Harry horrelakoa zen, baina agian zertxobait damutu da. **Mundu perfektua** beste polizeiei aurre egingo die, iraganean hartutako erabakiak astunegi direlarako burmuinean pilpilean garraiatzeko. Bertan Eastwooden ez du gogoko irtenbide ziur eta azkarra, baina bere pertsonaia gehienek hura erabili dute.

San Franciscon Harryk legea betearazten du, epaile eta hiltzailearen mugak hari mehe batez banatuz. Zergaitik da bera ona eta besteak gaiztoak? Azken finean, bai berak bai eta besteek ere benetazko gaiztoak (mafiosoak, gameluak, ustelduak, lapurrak eta abar) hilotzera bidaltzen dituzte, bederen honetan gizarteari mesedea eginez.

Don Siegelen filmeetan Harryk ia ia itxura faszista hartzen zuen, kaleak garbitzeko zuen eragatik, eta **Magnum Force** filmean sustraia ez aldatu arren legearen muga jarri zuten gidoilariak. Azken hauek nahikoa ezagunak eta esanguratsuak dira, biek antzeko bilakaera eta bukaera izan dutelako.

Alde batetik John Milius dugu. Bere lehen urratsak gidoilari bezala eman zituen eta burututako lanen artean **Roy Bean epailearen bizitza eta garaia** dugu. John Hustonek zuzendua, legea bere kasara jartzen zuen epailearen istorioa aski adierazgarria da Harryren nortasuna eza-gutzeko. Gaizkileen kontrako burrukan muga oso hauskorra eta arbitrarioa da eta zenbait gehiegikeria onar daitezke eskema honen barnean.

Michael Ciminek ere indarkeria maite du. Bere pertsonaiak badute zerbait berezia, baina nortasun hori zehazteko egoera arbitrario eta bereziak asmatzen ditu.



Honela Harryk ez du begi onez ikusten legez kanpoko polizi ekintza, baina polizia erugabe bat hiltzen den arte ez du benetazko legea ezartzeko indar moralik. Kasu honetan

mendekua erugabeak harrapatzen dituen balizko gaiztoak oso gaiztoak bilakatzen dira. Joko erraza, errazegia eta ondorioz hor dugu Harry eta polizia gaiztoen arteko elkarizketa. Harryk bere alde dituen argudioak oso eskasak dira. "Horrela jarraituz gero semaforoa goriz pasatzeagatik jendea garbitu behar al duzue?". Arazoibide simple eta tranpatia.

Eastwooden hogei urte beranduago **Unforgiven** zuzendu duenean, eskema hori apurtu egiten du eta indarkeriaren arazoa ingurune zabalagoan kokatzen du. Errudun eta erugabeen arteko desberdintasunak ez dira hain garbiak, indarkeriak denak suntsitzen baititu. Hustonek ere Roy Bean epailearen filmean norabide bera hartu zuen eta gaur egun gidoilariak, Miliusen, bere lana arbutatzen du.

Ciminek eta Miliusen ondoren burutu dituzten lanetan eskema bera errepikatuta dute eragelkerian eroriz, baina Eastwooden beste pauso bat eman du indarkeriak sortutako amesgaiztoa aztertuz. **Mundu perfektua** Kevin Costner gaztetan gartzelara ezlegalki bidaltzearen mamuak filme osoan jarraitu eta torturatuko du. Bukaeran FBIko tiratzaileak Costner hiltzen duenean bere amorrua eta ezina adieraziko ditu, aurreko filmeetan egin duen guztiaz, gaizkileak jo eta bertan hil, erabat damutua dagoelako.

Baina Harryk osorik dirau. Azken finean ondo ala gaizki egin, bera da bizirik jarraitzen duen bakarra. Bera da benetazko aingeru hiltzailea eta ez San Franciscon bere legea inposatu nahirik dabilen motorista taldea. Apokalipsiaren zaldikoek *western*etako behorrak alde batera utzi eta gaizkileei tiro ematen diete arbolan urkatu orde. Sergio Leonek Almeriako basamortuan kokatzen zituen bere ekintzak, baina inguruneak bost axola dio Harryri. Berdin ibiltzen da kotxez mende bat beranduago. Eastwooden pertsonaia eta filmeek John Ford, Anthony Mann, Nicholas Ray, Sergio Leone eta abarrek asmatutako munduan bizi dira. Ohitura eta tradizioa maite ditu. Lekuz kanpo dago gaur egungo mundu eta zinemaren.

Azken hau da Harryren egoskortasunaren gakoa. Legea bai eta ez. Arauak ez ditu maite. Are gutxiago burokrasiak ezarritakoak, baina norbaitek legea puskatzen badu berak ez dio aukerarik utziko. Roy Bean ez zen Harry baino samurragoa, baina biak gustora bizi dira kontradikzio horretan. Agian gustora bizi ziren, baina gaur egun zahartu hala, hildakoak pilatu egin direnean, zama astunegia da.

Baina Harry ez da aldatuko. Bakarrik bizi da, **Burnizko sarjentoak** bezala urte gehiegi ditu bat batean eta arrazoirik gabe aldatzeko. Emakumezkoak atsegin ditu, baina hauek ez dira bere etxeaz jabetzen. Eastwooden filmeetan apaingarri hutsak dira. Misojino amorratua ote? Agian ez baina ez dute lekurik, sukaldean, umeekin edo ohean ez bada. Ez da gaiztoa haiekin, baina bai matxista porrokatua. Are gehiago, honetaz barre egiten du, baina **Mundu perfektua** ikus daitekeen bezala ez du damurik.

Bakartia, bortitza, indibidualista, matxista, egoskorra, kortesiarik gabekoa. Bai horixe. Harry zuzena eta zakarra da. Gauzak diren bezala azaltzen ditu eta ez ditu apaingarriak maite. Hipokresia da gehien gorrotatzen duena. Eastwooden filmeetan hipokritek hiltzaileek baino itxura txarragoa izaten dute. **Magnum Forcen** bere benetazko aurpegia gordetzen duen poliziak du irudi gorrotagarriena. Horrelakoa da Harry. Zinearen mitolojia leku nagusia duen **Zaldiko zurbila**, Herio eta Apokalipsiaren azken mezularia.

J.J. Iribar

Tradizioaren ildotik / Clint Eastwood Zinegilea

Clint Eastwooden karrera, aktorea eta zinegilea den aldetik, gutxienez bitxia dela aitortu beharko dugu eta bide batez aitortu dezagun ere, amerikar tradizioan sakontzen duen zinegilearen gainean eginiko espektatibek huts egin zutela bete betean.

Lehenik, Sergio Leoneren *western*ek begirada sakoneko eta bi eguneko bizarra eramaten zuen pistoleroa margotu zuten. Geroago, Don Siegelen **Harry Zikina** (*Dirty Harry*) *thriller* zintzoan sortutako Hary Callahan polizia gogor eta bihotz-gabeak munduari buelta emango dio balio eskaseko beste lau filmetan.

Izan ere egundoko ospea eta dirua eman dioten bi pertsonaia hauetatik aldentzea ez da ahuntzaren gauerdiko estula izan, baina Eastwooden erronka eta trebetasuna izan dira guzti honi onura ateratzea, bi zentzutan besterik ez bada, batetik lan pertsonal eta interesgarriei ekiteko aukera ekonomikoa izatea merkatuari begira egindako filmeei esker, eta bestetik bi jenero zinematografikoak gertutik ezagutzea, *thriller*a eta *western*a, alegia.

Malpaso Company sortu zuenean aipatutako bi jenero hauek jorratu zituen gehienbat, begirada berri, aberats eta propio batez. Hala ere bere ohizko iruditik at dauden filmeetan ahaletzeak bukatu zuen behin beti inperialismoaren ordezkaria, eskuin al-
amorratua... **Bird** filmeak lehenengo, *black heart*) filmeak gero, jarri zuten tako amerikar zinegileen artean.

Josey Wales gaizkilea. (*The Wales*)

*Western*a, amerikar tradizioaren hase-tresna izan da Clint Eastwoodentzat, leak iturri honetatik edanez osatu ditu

indarkeria estraineko planoan ipiniz.

gaizkilea (*The outlaw Josey Wales*)

tzen dira neuri handi batean, Eastwood

kiko egin dituen ekarpen nagusiak,

indartu ezezik, garai bateko errealtate-

"Nire *western*ak horrelakoak dira, sortu

hin Eastwooden. Hala da, **Josey Wales gaizkilea** filmean ageri den bezala inguru fisikoak zein garaiko giza testuinguruak ez dute pertsonaiengan eta hauen jokabideetan eztabaida sakonik eragiten. Hain dira primitiboak, ze ekintzak egoera psikologikoen isla zuzenak gertatzen diren eta pertsonaiak akzio gordin eta biluzien bidez deskribaturik azaltzen dira.

Clint Eastwooden pertsonaiaren beraren kasuan, orain arte egindako paper guztien errepikapena dela baldin badirudi ere, (hitz gutxi gizona, gogorra, mugimendu lasai eta begirada sarkorreko arma-gizona...) diferentzia nabaria da, honetan kutsu dramatikoak iraunkorrago eta trinkoagoak baita. **Josey Wales gaizkilea** filmean pistolero bat aurkeztzen zaigu, honen gainean gauza handirik ez dugu jakingo ez guk, ez eta bidean topatzen duen edonork ere, ahulak eta makalak defendatzeko prest agertuko da, or bain batek zeharkatzen du bere aurpegia, iragan bortitz eta dramatiko baten lekuko, norabide jakinik gabe mugitzen da mendekuaren bila...

Eastwooden *western*ek duten ezaugarri garrantzitsua mitoa da. Mitoa eta gizona nahasten dira, batzutan mitoa gizona bilakatuz eta bestetan gizona mitoa bihurtuz. Filme honetan lehenik, Josey Wales mitoa izango da, istorioak aurrera jo hala gizona bihurtuko da, bukaeran haserako baldintza berreskuratzeko.

Istoriaren bizkarrezurra mendekua da. Garapena, pertsonaia bakari baten ibilbidea, eta ibilbide honetan bere patuari lotu nahian-edo aurkitzen dituen gizon eta emakumeak. Guztiak lasaitasun eta zoriontasun zatitxo baten bila dabilza eremu bortitz eta basati baten erdian.

Josey Wales gizaki garaitua da. Sentimendu samin eta mikatzen pozoia bere baitan gordetzen du, bere kontra altxatzen den arte.

Eastwooden beste *western*etan bezala, Bruce Surtees argazki-zuzendariaren eskua sumatzen da honetan ere, parajeen indarra eta edertasuna ondo baino hobeto jasoak baitaude.

Ezin uka bestetik, ixura tradizionala duen *western*a dela hau, beraz lirismoari, lurrari, bakardadeari eta emitoari zor dien errespetoa ez zaio falta inondik ere.

Bertha Gaztelumendi



rako garai bateko kritikak leporatutakoekin: Amerikar deko balioen defendatzailea, indarkeriaren lagun eta **Ehiztari zuri, bihotz beltz** (*White hunt*, Clint Eastwood jauna dagokion tokian, hau da, pun-

outlaw Josey

ran murgiltzeko batipat. Zinegi-bere istorioak,

Josey Wales

filmean laburbil-ek jeneroare-*western*a bera

rekiko fideltasuna gordetzen baitute ere filme hauek.

diren *une historikoaren ispilu direlako*" esan zuen be-



Ordu txikitán

Aurten bederatzi urte estreinatu zuten, Canneseko Zinemaldiko sail ofizialean, Martin Scorseseren **Ordu txikitán** filmea. **Ordu txikitán** baino lehenago ia azkenetan zegoen, orduko kritikarien ustez behinik-behin, zuzendari estatubatuarren zinema. **New York, New Yorkek** eta batez ere **Komediaren erregeak** (*The King of the Comedy*) dezenteko egurra jaso zuten, hala takiletan nola aldizkarietan, bizpahiru urte lehenxeago, eta inor gubik eskaini zion babesik, aldeztu aurretik, pelikula txiki eta ustez arin honi. Scorsese

indarberitunik agertu zen ordea, eta hark ohizko ofizioz prestatu zuen diler-loz eta sariz, zinemaldiko epaimahaiak eman baitzion, merezimendu osoz, Sarreratxo honen bitartez ez nuke sikiera, **Ordu txikitán** goian aipatu agoa denik. Baina bai gogoratu, haatik, duen ezaugarria berreskuratu zuela rixe bera saritu zutela epaimahaikeek, izan ere, bizia eta arina da, bizkorra eta norbaitek zalantzarik baldin bazuen be-



ikusleek txalo betean hartu zuten timento tragikomiko beltz hau. Txa-zuzendari onenari dagokion saria New Yorkeko zinemagileari.

azaldu nahi, ezta planteatu ere egin ditudan bi tituluak baino askoz hobebere zinemagintza osoa definitu Scorsesek filme honi esker, eta hohots, bizkortasuna. **Ordu txikitán**, bihurria, eta garbi utzi zuen, lehendik deren, Scorsese dena, egungo zine-

magintzan, narrazioei bizitasun eta mugimendu azkarrena ematen dien zuzendaria. Azeleratuena eta orekatuena, noski.

Scorsese, gainontzean, New Yorkeko amaraunaren barrura murgildu zen atzera Joseph Minionek idatzi zuen istorio kafkiar hau pantailaratze-ko, filmea kafkiarra baita zentzu guztietatik ikusita. Protagonista, lehenik eta behin, eguneroko lanaz eta eguneroko bizimoduaz iburaz leporaino nazkatuta dagoen langile informatikoa da. Protagonistak, hurrenik, ustez bere ametsetako printzesa edo gutxiarik gaua bero-bero igarotzeko lain aukera emango dion emakumezkoa ezagutuko du, Henry Millerren prosa lizunean itota dagoena. Eta protagonista, azkenik, ameskaizto

baten itxurako labirinto surrealista batean endredatuko da Sohotik barrena, eta bere ohizko bizitzatik kanpo dagoen beste mundu bat ezagutuko du, ezinegona eta angustia baizik eragingo ez dizkiona.

Pelikularen narrazio osoa gau batean gertatuko da eta oso pasadizo surrealistikak uztartuko ditu, gidoi biribil bati esker, protagonistak aipatu emakumearekin behin zita egin eta gero. Zita horren ondotik beste emakume batzuekin halabeharrean sortutako beste zita batzuk etorriko dira

eta, batetik bestera, oso pertsonaia bigonistari gaueko eskaparatean: artista manak, atso bakartiak eta abar. Eta bak, lapurretak, biolentzia, droga eta bes-eta lur, bulegari koitatuak.

Scorsesek, alabaina, ez zion **Taxi Dri-**erantsi nahi izan filme honi, eta komedia egoerak asmatu zituen bere labirinto ab-Bameratu eta egoera horiek jasotzeko, lotu baitzizkion atal desberdinak, eta lolitatez eginak, ezin panorama kafkiar Horixe da garrantzizkoena zinema

eta dotore uztartzeko gaitasuna baitu, logikarik gabe baina era logikoan, ameskaiztoetan bezala. Hau guztia, pertsonaiak une oro inguratzen dituen kamera mugikor baten bueltan.

Dibertimento guztiaren emaitza, bada, oso tragikomikoa da: tragikoa bere ezinegorean eta komikoa bere erokerian. Scorsesek bi mundu eta bakardade bakar kanporatu zituen eta fabula kafkiarren angustia utzi bukaerarako, aurpegiko barre-algara desagertzen zigunerako. Hala mundu batean nola bestean bakardadeak itoko ditu filmeko pertsonaiak, kasualitateak eragindako pasarte txokanteak baino askoz onatago dagoen bakardadeak. Beti berdintsu bada, aurrera eta atzera, lantokitik irten eta lantokira itzuli, ameskaiztoa balitz bezala.

Ordu txikitán, azken finean, espiral paranoikoa besterik ez da eta.

Andres Gostin



txien galeria agertuko zaio protamasokistak, kamarera erdi ninfotetik bestera dabilela ere, suizidio-te zenbait halako ikusiko du, zur

ver maisulanaren tragedia izpiritua beltzen estetika, ateraldiak eta surdo partikularra bameratzeko. ezen absurdoaren logika komikoari tura horiek, kasualitatearen kasua-egokiagoa sortu zuten pantailan. anketa bitxi honetan, egoerak arin



Otsailak 3, osteguna, 20'15etan


Zezen Basa

(Raging Bull, 1980)

Estatu Batuak, 1980. **Zuzendaria:** Martin Scorsese. **Ekoizpena:** Robert Chartoff, Irwin Winkler. **Gidoia:** Paul Schrader, Mardik Martin. **Muntaia:** Thelma Schoonmaker. **Musika:** Jim Henrickson. **Argazki-zuzendaria:** Michael Chapman. **Aktoreak:** Robert de Niro, Cathy Moriarty, Joe Pesci, Frank Vincent, Nicholas Colasanto.

Bi Oskar irabazitako filmea: aktore onenari (Robert de Niro, bere pertsonaiaren gainbeheraldia hobe interpretatzearen bere pisua bikoiztera irixi zena) eta muntaia onenari emandakoak. Oskarren beste sei ataletan ere izangai edo kandidate izan zen.

Zezen Basa, Jack La Motta pisu ertainetako boxeoko mundu-txapeldunari buruzko filmea da, haren bizitza zurrumbilotsua eta boxearen ingurunea modu latzean kontatu eta deskribatzen dizkiguna.




Otsailak 10, osteguna, 20'15etan

Magnum Force

(Magnum Force, 1973)

Estatu Batuak, 1973. **Zuzendaria:** Ted Post. **Ekoizpena:** Robert Daley/Malpas Company. **Gidoia:** John Milius, Michael Cimino. **Musika:** Lalo Schiffrin. **Aktoreak:** Clint Eastwood, Hal Holbrook, Mitchell Ryan, David Soul, Felton Perry, Robert Urich.

Clint Eastwood Harry Callahan da, filme-jenero honetan oso polizia berezia gertatzen dena. Hauxe du zeregina: San Frantziskon diharduten era guztietako hiltzaile, lapur, narkotrafikatzaile eta gazkileak oro harrapatzea, alegia. Txanda honetako etsaia berezi samarra da, ordea, bere lankideek osaturiko "Heriotzaren Eskoadroi" bati aurre egin beharko dio-eta.




Otsailak 17, osteguna, 20'15etan

Josey Wales gaizkilea

(The Outlaw Josey Wales, 1975)

Estatu Batuak, 1975. **Zuzendaria:** Clint Eastwood. **Ekoizpena:** Robert Daley/Malpas Company. **Gidoia:** Phil Kaufman, Sonia Chernus. **Musika:** Jerry Fielding. **Aktoreak:** Clint Eastwood, Chief Dan George, Sondra Locke, Bill Mc Kinney, John Vernon.

Clint Eastwood-en paregabeko interpretazioa. Estatu Batuetako Sezesio-gerra garaian "bota-gorri" izeneko soldadu odolitzale batzuek emaztea eta semea hil ondoren, Josey Wales nekazaria mendeku bila abiatzen da. Legetik kanpo bizi den pertsonaia honen erretratuaren bidez, zuzendari estatubatuar handiak bizitzaz eta heriotzaz gogoeta egiten du, eta biolentzia itsu eta irrazionalaren ondorioez era berean.



Otsailak 24, osteguna, 20'15etan

Ordu txikitán

(After Hours, 1985)

Estatu Batuak, 1985. **Zuzendaria:** Martin Scorsese. **Ekoizpena:** Geffen Company, Double Play. **Gidoia:** Joseph Minion. **Musika:** Howard Shore. **Muntaia:** Thelma Schoonmaker. **Argazki-zuzendaria:** Michael Ballhaus. **Aktoreak:** Rosanna Arquette, Verna Bloom, Thomas Chong, Griffin Dunne, Linda Fiorentino.

Estatu Batuetako zine garaikidearen sorpresarik atseginenetakoa. Izan ere, Scorsese, filme honetan, aurreko bere pelikularik onentsuenetako batzuetan agertarazitako kezken inguruan baitabil berriro; komedia sofistikatu-erotu baten bitartez, ordea, oraingo honetan, tratamendu honen bidez kezkek inoiz baino larriago eta zorrotzago agertzen direlarik. Zine-trebetasunez eta maltzurkeria kritikoz beteriko irakaspena, garai hartako EEBBn obsesio esanguratsuenetako batzuk modu paregabean azalarazten dituena.

SARRERA: 300 pta.

OHARRA: Filme guztiak jatorrizko bertsioan, euskarazko azpituluekin.

HURRENGO ZIKLOA: **RETRATOS DE MUJERES**